Propagandatik albisteetara: euskarazko kazetaritza informatiboaren hastapenak XIX. mende bukaeran

De la propaganda a las noticias: los inicios del periodismo informativo en euskera a finales del siglo XIX

De la propagande aux nouvelles : les débuts du journalisme informatif en basque à la fin du XIX^{e} siècle

From Propaganda to News: The Beginnings of Informative Journalism in Basque in the Late 19th Century

MURUA URIA, Imanol
Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU
Kazetaritza Saila
imanol.murua@ehu.eus
ORCID: https://orcid.org/0000-0002-1083-7731

DOI: https://doi.org/10.59866/eia.v2i71.350

Jasotze-data: 2025-11-07
Behin-behineko onartze-data: 2026-04-21
Behin betiko onartze-data: 2026-06-09

Artikulu honek euskarazko kazetaritza informatiboaren hastapenak aztertzen ditu. Horretarako, XIX. mendean argitaratu ziren euskal aldizkarietan albistearen generoa noiz lantzen hasi ziren eta nola garatu zuten azaltzen du. *Le Réveil Basque, Eskualduna* eta *California'ko Eskual Herria* informazio orokorreko astekariek astez aste eta luzaroan landu zuten informazio-genero oinarrizkoena euskaraz, baina *Uscal-Herrico Gasetak*, *Escualdun Gazetak*

eta *Euskalzale*k ere argitaratu izan zituzten albisteak. Aldizkari horien azterketa hemerografikoan oinarritu da ikerketa.

Hitz gakoak: albistea, informazio-generoak, kazetaritza-generoak, euskal kazetaritzaren historia, euskal hedabideak.

Este artículo estudia los orígenes del periodismo informativo en euskera. Analiza cuándo y cómo comenzó a desarrollarse el género de la noticia en las revistas vascas publicadas en el siglo XIX. *Le Réveil Basque*, *Eskualduna* y *California'ko Eskual Herria* fueron semanarios de información general que cultivaron el género informativo básico en euskera de manera sistemática y prolongada, pero *Uscal-Herrico Gaseta*, *Escualdun Gazeta* y *Euskalzale* también publicaron noticias. La investigación se basa en un análisis hemerográfico de estas revistas.

Palabras clave: noticia, géneros informativos, géneros periodísticos, historia del periodismo vasco, medios en euskera.

Cet article analyse les débuts du journalisme informatif en langue basque. Il explique quand et comment le genre de la nouvelle a commencé à se développer dans les revues basques publiées au XIX^e^ siècle. *Le Réveil Basque*, *Eskualduna* et *California'ko Eskual Herria* étaient des hebdomadaires d'information générale qui ont cultivé de manière régulière et durable le genre informatif fondamental en basque, mais *Uscal-Herrico Gaseta*, *Escualdun Gazeta* et *Euskalzale* ont aussi publié des nouvelles. La recherche repose sur une analyse hémérographique de ces revues.

Mots-clés : nouvelles, genres informatifs, genres journalistiques, histoire du journalisme basque, médias en basque.

This article examines the early development of informative journalism in Basque language. It describes when and how the news genre began to be cultivated in Basque magazines published in the 19th century. *Le Réveil Basque*, *Eskualduna* and *California'ko Eskual Herria* were general-information weeklies that regularly and consistently developed the basic genre of news in Basque, although *Uscal-Herrico Gaseta*, *Escualdun Gazeta* and *Euskalzale* also published news items. The research is based on a hemerographic analysis of these periodicals.

Keywords: news, informative genres, journalistic genres, history of Basque journalism, media in Basque.

MURUA URIA, Imanol (2026) «From propaganda to news: the beginnings of informative journalism in Basque in the late 19th century», *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 71 (2): 143-176.

1 Sarrera
2 Metodologia
3 Auziaren egoera
4 **Emaitzak**
4.1 *Uscal-Herrico Gaseta*
4.2 *Escualdun Gazeta*
4.3 *Le Réveil Basque*
4.4 *Eskualduna*
4.5 *California'ko Eskual Herria*
4.6 *Euskalzale*
5 Ondorioak
Bibliografia

1 Sarrera

Euskarazko kazetaritzaren historia 1880ko hamarkadan hasi zen. Euskaraz testu informatiborik argitaratu zen aurretik, eta euskarazko hedabiderik ere bai aldi labur batez —Xahoren *Uscal-Herrico Gaseta*—, baina, 1886an Pauen *Le Réveil Basque* eta 1887an Baionan *Eskualduna* jaio ziren arte, euskaldunek ez zuten izan aukerarik bertako eta urrutiko gertaeren berri euren hizkuntzan maiztasunez eta modu jarraituan jasotzeko. Hurrengo hamarkada ere emankorra izan zen: 1893an, Los Angelesen, *California'ko Eskual Herria* jaio zen —eta lekukoa hartu, zortzi urte lehenago hiri berean hiru astez baino argitaratu ez zen aldizkariari, *Escualdun Gazeta*ri—, eta, 1897an, Bilbon, *Euskalzale* kultur astekaria.

Le Réveil Basque, *Eskualduna* eta *California'ko Eskual Herria* informazio orokorreko astekariak ziren, eta gaurkotasun informatiboari jarraipena egiten zioten. *Le Réveil Basque* eta *Eskualduna* elebidunak ziren. *Le Réveil Basque*k frantsesez argitaratu zituen artikulu gehienak bere ibilbide osoan, eta *Eskualduna*n ere frantsesak presentzia handia zuen lehen urte haietan, denborarekin euskara guztiz nagusitu zen arren. *California'ko Eskual Herria*, aldiz, euskara hutsean argitaratu zen, *Euskalzale* bezala, baina hau kultura aldizkaria zen; gaurkotasun informatiboari ez zion astez asteko jarraipenik egiten, baina kazetaritza-testuak argitaratu ohi zituen, dibulgazioko eta sormeneko testu ugariagoen artean.

Kazetaritza ideologikoaren garaia zen, eta iritzia eta informazioa nahastea oso ohikoa zen. Oro har, iritzi generoek (gutunak, iritzi-artikuluak) leku handia hartzen zuten. Informazio-generoen artean albistea zen nagusi, baina albistea bezain goiztiarra da kronika euskarazko prentsan, nazioartekoan bezala. Elkarrizketa eta erreportaje oso gutxi argitaratzen ziren garai hartan hizkuntza nagusietan, genero horiek hurrengo mendean garatuko baitziren, eta euskarazko hedabideetan ez zen halakorik plazaratu ez mende bukaera hartan, ez hurrengo mendearen lehen bi hamarkadetan ere (Díaz Noci 1995).

Euskarazko kazetaritza-generoen hastapenei buruzko ikerketa orokorragoaren barruan, euskarazko lehenengo albisteak non, noiz eta nola argita-

ratu ziren argitzea da artikulu honen helburua, eta euskarazko kazetaritza-generoen garapena nazioarteko kazetaritzaren ereduen bilakaeraren testuinguruan kokatzea. Hau da, XIX. mende bukaeran euskaraz argitaratu ziren hedabideek informazio genero oinarrizkoena zer modutan eta zer ezaugarrirekin baliatu zuten argitu nahi du.

2 **Metodologia**

Euskarazko albisteak argitaratu zituzten lehenengo hedabideen azterketa hemerografikoa dago ikerketa honen oinarrian. Sei aldizkariok hartu dira kontuan: *Uscal-Herrico Gaseta* (1848), *Escualdun Gaze*ta (1885-1886), *Le Réveil Basque* (1886-1894), *Eskualduna* (1887-1944), *California'ko Eskual Herria* (1893-1898) eta *Euskalzale* (1897-1899). *Eskualduna* aldizkariaren lehen hamahiru urteak aztertu dira, ez ibilbide osoa.

Aldizkari horien bildumak eskuragarri daude hainbat hemeroteka digitaletan: *Uscal Herrico Gaseta,* Frantziako Liburutegi Nazionaleko Gallica zerbitzuan; *Escualdun Gazeta* eta *California'ko Eskual Herria*, Eusko Jaurlaritzaren *Euskariana* webgunean; *Le Réveil Basque*, Baionako Udalaren Bilketa atarian; *Euskalzale*, Susa argitaletxearen Armiarma zerbitzuaren Euskal Prentsaren Lanak atalean; eta, *Eskualduna*, bai Bilketa atarian, bai Armiarmaren gunean.

Hedabide guztiek XIX. mendean argitaratutako zenbaki guztiak begiratu dira, euskarazko albisteak atzemateko. Beren ibilbide laburragatik edo kazetaren izaeragatik albiste corpus txikia duten hiru hedabideetan, hau da, *Uscal-Herrico Gaseta*, *Escualdun Gazeta* eta *Euskalzale* aldizkarietan, albistetzat jo diren testu guztiak aztertu dira. Ibilbide luzeagoko eta albiste ondare handiagoko beste hiru hedabideetan, argitaratutako albiste guztiak gainbegiratu dira, albisteak argitaratu ohi zituzten atalei erreparatu zaie bereziki, beren ezaugarriengatik esanguratsuenak diren albisteak aztertu dira, eta haien arteko aipagarrienak nabarmendu dira berariaz artikulu honetan.

Ikerketatik kanpo gelditu dira kazetaritzakoak ez diren testuak, hala nola dibulgaziokoak, literatur sorkuntzakoak, eta gai erlijiosoei buruzkoak, baita hedabide elebidunetan frantsesez argitaratutako testuak ere. Iritzi-testu hutsak ere, hala nola iritzi-artikuluak eta gutunak, kanpo utzi dira, baina informatzeko helburuz idatzitako testu hibridoak, informazioarekin batera iritzia ere ematen dutenak, aintzat hartu dira. Albiste ez diren kazetaritza-testuak, hala nola kronikak eta zerbitzu-kazetaritzako atalak, kontuan hartu dira ikerketan, eta batzuetan aipatu ere bai, testuingurua osatze aldera.

Testuak sailkatzeko irizpide gisa generoei buruzko oinarri teoriko klasikoak hartu dira. Batetik, tradizio anglo-saxoian finkatutako bi multzo handiak bereizi dira, *stories* eta *comments*, hau da, kontakizun informatibo eta interpretatiboak, batetik, eta argudiozko kontakizunak, bestetik. Sailkatze hori bat dator van Dijken (1990) diskurtsoaren teorian egiten den bereizketarekin: narrazio eskemako testuak, batetik, eta argudio eskemako testuak, bestetik. Behin argudio testuak baztertuta, Martínez Albertosen (1974) oinarri teorikoen gainean Gomisek (2019) proposatutako sailkapenaren argitan bereizi dira albisteak narrazio eskemako testuen artean eta aztertu dira albiste horien ezaugarriak.

3 **Auziaren egoera**

Oihartzabalen (1990) aurkikuntzari esker dugu *Uscal-Herrico Gaseta*ren berri, Parisko Biblioteka Nazionalean bere bi zenbakiak topatu zituen arte ez baitzegoen Xahoren aldizkariaren berririk. Geroztik, euskarazko kazetaritzaren lehen mugarritzat hartu dute ikerlariek (Díaz Noci 1995; Urkizu 1992). *Uscal-Herrico Gaseta*n plazaratutako hainbat artikulu berrargitaratu zituen Xahoren testu hautatuen bilduman Urkizuk (Chaho 1992).

Los Angelesko *Escualdun Gazeta*ri Díaz Nocik (2001) aitortu dio euskaraz beste inork baino lehen landu izana kazetaritza-hizkuntza ez-erretorikoa, baina testuen kalitatea ez dela oso ona ohartarazi dute Knörrek (1990) eta Arbelbidek (2001).

Donostiako *Euskal-Erria* hamabostekariak euskarazko kazetaritza-testu gutxi batzuk argitaratu zituen 1880an sortu zenetik, gaztelaniazko testu ugariagoen eta kazetaritza arlokoak ez ziren euskarazko beste askoren artean; izan ere, euskarazko lehen kronikak aldizkari horretan argitaratu zituen Klaudio Otaegik (Murua 2023), baina artikulu honetan aztergai dugun generoa, albistea, ez zuen euskaraz batere landu.

*Le Réveil Basque*ri buruzko lehen aipamenetan, Laffitek (1941, 1971) ez zion euskarazko kazetaritzari egindako ekarpenik aitortu; erreakzioz *Eskaldun*aren sorrera eragin zuelako egin zion aipamena, ez besterik. Euskarazko kazetaritzari egindako ekarpenaren lehen aitormena Díaz Nociren (1995) eskutik etorri zen, eta Arbelbideren (2007) eta Altzibarren (2008) ikerketak etorri ziren gero. Altzibarrek hipotesi moduan planteatu zuena —«Berri larriak, bereziki politika mundukoak, laburki ematean euskal kazetaritzaren historian lehena izan daiteke» (2008: 35)— konfirmatu egin du beste ikerketa batek gero (Murua 2024).

*Le Réveil Basque*ren ekarpen aitzindaria gorabehera, *Eskalduna* askoz erreferentzia garrantzitsuagoa da euskarazko kazetaritzaren ikertzaileentzat, bere ibilbide luzeagatik noski —1944. urtera arte argitaratu zen astero—, eta ibilbide luze horretan euskarari eman zion lehentasunagatik. Kazetaritzaren ikuspegitik egindako azterketetan, Altzibar (2004; 2005) eta Bidegain (2013) bat datoz esatean lehen aroko *Eskaldun*aren testu gehienen egitura narratiboa zela, ipuinaren antzekoa, kazetaritza modernoagoan nagusituko zen piramide irauliaren egituraren kontrastean.

*California'ko Eskual Herria*k kazetaritza-eredu modernoagoa landu zuen. Díaz Nocik (2001) azpimarratu du Los Angelesko euskal astekaria kutsu informatibo handiko produktua zela, garai hartako Ipar Amerikako prentsaren tankerakoa, eta albisteentzako kazetaritza-hizkuntza egokia garatu zuela. Arbelbidek (2001, 2003) eta Muruak (2022) ere nabarmendu dute kalitate oneko astekaria izan zela, bai kazetaritzaren ikuspuntutik, eta bai hizkuntzaren mailaren aldetik ere.

*Euskalzale*k ere, informazio orokorreko aldizkaria izan gabe, euskarazko kazetaritza-hizkuntza modernoa eraikitzeko eta garatzeko lan aipagarria egin zuen hainbat ikerlariren arabera (Altzibar 2002; Díaz Noci 1995; Kin-

tana 2005), bere desagerpenaren ondoren Resurreccion Maria Azkuek berak bultzatutako *Ibaizabal* astekariarekin (1902-1903) batera.

4 Emaitzak

4.1 *Uscal-Herrico Gaseta*

Bi zenbaki baino ez zituen argitaratu Xahoren *Uscal-Herrico Gaseta*k, 1848ko ekainean eta uztailean. *Ariel* aldizkariaren sortzaile eta egilea zen Xaho. Frantsesez argitaratu zen, baina noizbait euskaraz ere bai. *Ariel*en arduradun zen garaian politikagintzan engaiatu zen Xaho, ideia errepublikazaleen defentsan. 1848ko otsailean Parisen piztutako matxinadak iraultza ekarri zuenean, Xaho eragile nagusietakoa izan zen Baionan Bigarren Errepublika aldarrikatzen (Zabaltza 2011).

Iraultzaren urtean plazaratu zituen *Uscal-Herrico Gaseta*ren bi zenbakiak. «Astian behin» argitaratuko zela zioen mantxetan, baina lehena ekainaren 30ean atera zuen, eta bigarrena handik hiru astera, uztailaren 23an. Erredaktorea Xaho zela zioen azalean. Lehen zenbakiak ez zuen *Ariel*ekiko loturarik aitortzen, baina bigarrenak zioen *Ariel*en gehigarria zela. Hala ere, aparteko argitalpena ematen du, salneurri propioa duenez: «hirour sos» aleko. Lau orrialde zituen, garai hartako berri-paperek ohi zuten moduan.

Lehen zenbakian, hedabidearen hiru aurkezpen testu, dibulgazio politikoko testu bat, laborari baten iritzi gutuna eta egutegiko hainbat argibide dakartza, izenburuagatik informatiboak diruditen hiru atalez gain: «Cer da berri?», «Espagnaco berriac» eta «Pariseco berriac».

«Cer da berri?» atalak bederatzi testu biltzen ditu. Iritzikoak dira bi, eta, albisteak, gainerako zazpiak. Horietako lau, informazio hutsak, iritzirik gabeak: Arrangoitzeko meraren eta axuantaren dimisio eskaera, Aierrako alkatearen dimisio eskaera, espioi baten atxiloketa Iholdin, eta Iruñeko San Fermin jaien iragarpena. Beste hiruretan informazioa iritziarekin nahasten da. Donapaleuko auzitegiarekin zerikusia dute hirurek: bi epai eta izendapen bat. «Espagnaco berriac» atalak ez dakar albisterik. Testu luze bakarra

da, iritzi hutsa, Espainiako monarkiaren aurkako esamesak eta Errepublikaren aldeko aldarriak biltzen dituena. «Pariseco berriac» atalak ere testu luze bakarra du. Lehen paragrafoa informatiboa da, iraultzaren ondorengo egoera ezegonkorraren testuinguruan Parisen izandako istilu larrien berri ematen baitu, baina gainerakoan iritzi testua da.

Atalen izenburu orokorrez gain, albisteek ez dute titulu propiorik. Sinadurarik ere ez, denak Xahok idatziak direla pentsatzekoa den arren. Estiloari dagokionez, kazetaritza-hizkuntzatik urruti daude: pasadizo moduan eraikiak daude kontakizunak, eta zehaztasun handirik gabe ematen da informazioa. Hala ere, lehen zenbakiko zenbait testutan lehen paragrafoan ematen dute informazioaren funtsa, gerora kazetaritza-estiloan ohikoa izango den moduan.

Honela hasten da, adibidez, Aierrako meraren dimisio eskaeraren berria: «Ayherran ere eguin-dute peticione Meraren contra». Iholdiko espioiari buruzko testuan, bigarren esaldian ulertzen da zer gertatu den: «Iholdiko cantonadan da allarma, espiounez baster guciac betheric direlacotz. Oztibarreco acheri çaharrec doute bat atceman drolequi cephouan». Donapaleuko auzitegiko epaiei buruzko bi berriak ere kazetaritza-estiloz abiatzen dira. Honetan aski da lehen esaldia irakurtzea jakiteko nori nolako zigorra ezarri dioten, non eta zergatik: «Esteben Chourrout, Hostacoua, içan-da condenatia Donapaleouco tribunalaz hamabost egoun pressoundei, morde Aphalo Cibitcecouari, Oztibartarren adisquidiari, phoussaco-bat emanic, eta makhila-ukaldi-baten kheinia eguinic». Beste honetan ere kazetari legeen W gehienak biltzen ditu lehen esaldiak: «Maria Biscay, Maria Harguinordoqui eta Graciousa Harguinordoqui condenatuac içan-dire Donapaleouco tribounalaz, hilabethe-baten gaztelura, Maria Arghintoa jo-çutelakotz makil eta escalapoin ukhaldica, Bitripeilloco eiheran, belhaguile-celacotan, eta Graciousa horren semiari gaitz eman çacola»[1].

Bigarren zenbakiak informazioa iragartzen duten bi atal dakartza: «Franciako berriac» eta «Españiaco berriac». Gainerako testuak: hauteskundeekin zerikusia zuten bi iritzi testu, gutun bat, Xahok eta beste politikari batek

[1] «Cer da berri?», *Uscal-Herrico Gaseta*, 1848-06-30.

Parisen egindako egonaldiaren kontakizuna, egutegiko argibideak, eta aldizkaria jaso nahi dutenentzat azalpena.

Frantziako berrietan Parisko istiluei buruzko testu luzea dator; hasiera samarrean esaldi informatibo bat ematen du atxilotu-kopuruari buruz, baina gainerakoan iritzia da. Espainiako berrien atalak bi testu ditu: lehena, Espainiako erreginaren eta beste hainbat buruzagiren gorabeheren gaineko iritzi kutsuko kontakizuna da; bigarrena, 1846-1949 urteetako gatazka karlistaren testuinguruan mugaren bi aldeetan izandako hainbat gertaeren berri ematen duen kontakizun informatiboa da, azken lerroak albiste estilokoak ez diren arren, bibaka bukatzen baitu independentziaren, Errepublikaren eta Euskal Herriaren alde. Bigarren zenbaki horretan ez dago kazetaritza-estilora hurbiltzen den testurik; idazlea testu hasieran ez da harira joaten, lehen zenbakiko adibideetan egin zuen bezala.

4.2 ***Escualdun Gazeta***

Martin V. Biscailuzen *Escualdun Gazeta*k plazaratutako hiru zenbakietatik bi baino ez dira gorde: lehena, 1885eko abenduaren 25ekoa; eta, hirugarrena, 1886ko urtarrilaren 16koa. Egunkari formatuko lau orrialde ditu zenbaki bakoitzak. Testuek hartzen dute lekurik handiena, baina iragarkiak ere badira. Dena, euskara hutsean.

Testu gehienek informazioa dakarte. Askok, informazio hutsa; beste askok, iritziz hornitua. Iritzi nahiz informazio askok Los Angelesko udal politikekin eta auzitegien arloko aferekin dute zerikusia. Ezagun du editorea, Biscailuz, abokatua eta zinegotzia zela; Alderdi Demokratakoa zen, udal oposiziokoa, besteak beste testu honetan argitu zuenez: «Oraico conciluco membruak denak republicanoak dira salvu Gazeta hunen iguilea eta beste biga»[2].

Udal-hauteskundeak, udaletxe barruko gorabeherak, politikarien arteko istiluak, dibortzio-kasu ugaritasuna, trenbide-zati baten eraikuntza, hainbat kale konpontzeko beharra, poliziaburu berriaren izendapena, postetxe han-

[2] «Herrico elexioniak», *Escualdun Gazeta*, 1885-12-24.

diagoa egiteko asmoa… Informazioa eta iritzia nahasten ditu gai horiei buruzko testuetan, lehenengo pertsona ere erabiliz batzuetan. Iritziz hornitutako informazioak ematen ditu bestelako arloetan ere: adibidez, Arizonako apatxeei buruz kutsu arrazista handiko testu bana argitaratu zuen bi zenbakietan.

Ugariak dira Los Angelesko eta Kaliforniako beste hainbat lekutako euskal komunitateko kideei buruzko berri labur-laburrak: Ameriketara iritsi berriak, negozio zabaldu berriak, heriotzak, gaixotze eta sendatzeak, istripuak… Testuotan ez dago iritzirik, informazio hutsa dira gehienetan, elaborazio gutxikoak. Iturri propioak daude albiste horien atzean, komunitatearen barrutik baino iritsi ezin ziren informazioak baitira.

Euskal komunitatearekin zerikusirik ez duten albiste orokorragoak ere badira, Kaliforniakoak gehienak. Sumatzen da beste hedabideetatik hartuak izan daitezkeela: munduko gizonik aberatsena hil dela, tiroketa bat gertatu dela taberna batean, eguzki-eklipsea datorrela laster, haur baten heriotza eragin duela etxe-istripu batek, seme-alabekin etxetik alde egin zuen emakumea atzeman dutela… Udaleko eta auzitegietako albisteetan baino askoz ere iritzi gutxiago dago, baina iruzkinik txertatzen du erredaktoreak tarteka.

Kaliforniako eta mundu zabaleko beste albiste batzuk laburragoak dira, eta kutsu informatibo handiagokoak. «Depechak» izeneko atalaren barruan datoz eta, beraz, albiste-agentzia sortu berrien ordainpeko zerbitzuaren bidez telegrafoz jasotako albisteak bide dira: ez dute izenbururik, baina hiria eta eguna zehazten dute, testuaren aurretik. Lehen zenbakian, bi *depecha* Paristik datoz, beste bi Londresetik, bat Madrildik, bat Panamatik, hiru Kaliforniako hirietatik eta beste hiru Ameriketako Estatu Batuetako beste hiri batzuetatik.

Kazetaritza-estiloaren eta kutsu informatiboaren erakusgarri, hara Paristik datorren albisteetako bat, osorik: «Franciak eta Madagascarek bakia eguin dute. Franzia yartcen da Madagascaren governor»[3]. Hirugarren zenbakian *depecha* batzuk errepikatuta datoz, baina iritsi dira albiste berri gutxi batzuk ere, hala nola Edinburgotik, Veneziatik eta San Frantziskotik.

[3] «Depechak», *Escualdun Gazeta*, 1885-12-24.

Zalantza handirik gabe esan dezakegu berri agentziek zabaldutako informazioa euskaraz ematen zen lehen aldia zela.

«Depechak» ataleko albiste laburrak kazetaritzan gerora nagusituko zen estiloan daude emanak: itzulingururik gabe gertaeraren mamia ematen dute hasieratik. Laburtasunak eramaten ditu horretara —izan ere, piramide irauliaren estiloaren jatorria telegrafoan dago, garestiegi ez ateratzeko hitz gutxitan laburbildu behar izaten baitzuten kazetariek telegrama gisa bidali beharreko albistea, hasieratik harira joanez (Stephens 1997)—, baina laburtasunagatik askotan zehaztasuna ere falta dute. Edinburgon datatutako honetan, adibidez, ez du buruzagi izendatu berriaren izenik ematen. Albistea, osorik: «Americano ministro nombratu berria erreinaren ikhusten isan da bere paperen erakhusteko»[4].

Beste ataletako testu luzeagoetan ere nabari da AEBetan Europan baino azkarrago garatzen ari den kazetaritza-estilo zuzenaren eragina. Adibidez, udal-kontseilarien arteko xextra bati buruzkoan lehen bi esaldiak irakurtzea aski da, protagonistak ezagutuz gero, albistearen muina ulertzeko: «Yuanden Larumbatian yuya Brunsonec, condenatu isan du Carlos Cruz ehun pesoren multaren pagatcera. Asken elexionetan, Cruz, arras moscorra sen eta hiru edo lau guison colpatu situen, puñalarekin»[5].

Izenburuetan ez da kazetaritza informatiboaren eragina nabari.. Oraindik, tituluak oso orokorrak dira, hitz bakarrekoak askotan, informazio zehatz gutxikoak. «Herrico elexioniak», «Arisonaco apatchiak», «Justicia», «Bandit atrebituya», «Pistoleta eta ganibeta»… Informazioa zeri buruz den aurreratzen dute, baina muina laburbildu gabe.

Albisteak izan gabe, kazetaritza informatiboaren alorrean kokatu beharko genituzke zerbitzu kazetaritzako atalak: merkatuko prezioak zehazten dira —ilea, larrua, haragia—, baita Los Angelesetik abiatzen diren trenen ordutegiak ere[6].

---

[4] «Depechak», *Escualdun Gazeta*, 1886-01-16.

[5] «Justicia», *Escualdun Gazeta*, 1886-01-16.

[6] «Merkhatuco presiuak», «Chemin de Ferres arritbatceko eta partitceko orenak», *Escualdun Gazeta*, 1885-12-24 eta 1886-01-16.

4.3 *Le Réveil Basque*

Xahoren astekaria bezala, *Le Réveil Basque* hauteskunde helburuekin jaio zen, 1886ko uztailean, errepublikazaleen aldeko kanpaina egiteko. Pauen argitaratzen zen, baina Euskal Herrian banatzen. Helburu ideologikoak lehentasuna izan zuen ibilbide osoan, baina informazioa ere landu zuen.

Lehen lau urteetan laurdena edo gehiago argitaratzen zuen euskaraz, eta kalitatezko informazioa eskaintzen zuen, kalitatezko idazkeran, bereziki Frantziako gertaera politiko nagusiez. 1890eko abendutik 1893ko uztailera bitartean, aldiz, euskara ia desagertu egin zen *Le Réveil*en orrialdeetatik; oso gutxi ziren euskarazko testuak, eta trakets idatziak ziren gainera. Azken urte eta erdian euskarazko testuen kopuruak eta kalitateak gora egin zuen, hasierako aroko mailara iritsi gabe.

Informazio generoei dagokienez, batez ere albisteak landu zituen, sinadurarik gabeak. Gertakari handi batzuei astez asteko segimendua egin zien, ordura arte euskaraz inork egin ez zuen eran, hala nola Frantziako Armadaren maniobra bereziei eta Sadi Carnot estatuburuaren izendapenari eta agintaldiari. Informazioa eta iritzia nahasten zituen sarri, kazetaritza ideologikoan ohikoa zen moldean, baina informazioak lehentasuna zuen berri ugari ere plazaratu zituen, batzuetan iritzi kutsu txikiarekin eta beste batzuetan iritzirik gabe. Kronikak ere argitaratu zituen, gehienetan bigarren eskukoak, hau da, jatorriz frantsesez idatzitakoen moldaketak, baina lehen eskuko kronika gutxi batzuk ere plazaratu zituen.

Iritzirik gabeko lehen albistea ez zuen 1887ko martxora arte plazaratu, aldizkaria sortu eta zortzi hilabetera. Italia eta Frantziaren arteko mugaren inguruan izandako lurrikara baten berria da. Titulua orokorra da; ez du lekua zehazten, gertaera baizik: «Lur ikharac». Eta informazioaren muina hasieran ematen du: «Franciako eta Italiako fruntera ondotan, duela cembait egun, hain bertze lur ikara izan dire. Lehenbicikoa zen terriblena»[7].

Geroztik, ohikoak bihurtu ziren informazioa lehentasun zuten albisteak. Politika-arlokoak ziren ugarienak; askotan iritzia ere ematen zen, eta, beste

[7] «Lur ikharac», *Le Réveil Basque*, 1887-03-13.

askotan, informazio hutsa. Esanguratsuak dira Sadi Carnot presidentearen izendatzeaz eta agintaldiaz emandako informazio ugariak eta landuak. Inbestiduraz euskaraz argitaratutako hiru testuen artean, albiste nagusian laburbildu zuten gertaeraren muina. Titulua, orokorra baina informatiboa: «Errepublikaren presidentaren bozkatzea». Egitura, guztiz kronologikoa, funtsa hasierara ekarri gabe: diputatuak bildu dira Versaillesen, Senatuko presidentea izan da buru, lehen bozketan inork ez du behar beste boto lortu, hauek izan dira emaitzak, bigarren bozketa egin behar izan da, hauek emaitzak, diputatuek «bravo!» oihu egin dute, bilkurako buruak esan dio Sadi Carnoti hautatua izan dela, presidente berriak esker oneko hitzak izan ditu, eta hautatu berriaren hitzaldiaren aipuak jarraian, euskaraz[8]. Ipuinaren egitura gehiago da albistearena baino, baina informazioz josia dator.

*Le Réveil*en informazioen lurralde esparru nagusia Frantzia zen, baina Euskal Herritik begiratuta. Horregatik arreta berezia jarri zion Sadi Carnoten agintaldiko lehen ministro bati, Charles Floqueti, euskal herritarra baitzen, Donibane Garazin sortua. Bere izendapenaz albiste mamitsua argitaratu zuen, eta jarraipen estua egin zion agintean iraun zuen hamar hilabeteetan. Izenburua ohi baino informatiboagoa ere bazen, abizena ere nabarmentzen baitzuen: «M. Floquet. Gure Ministroen Presidenta». Egitura ez zen oso kazetaritzakoa, hirugarren paragrafora arte ez baitzuen argitzen nor izendatu zuten. Lehenaren hasiera: «Azkeneko gaseta batean erran izan dugu nola […]». Bigarrenarena: «Bainan trunpatuac gelditu dire […]». Hirugarrenean, azkenean: «Memento huntako ministerioaren egilea da M. Floquet, eskualduna, Donibane Garazin sorthua 1828an: ama Baigorriarra, andere Etcheverry». Ondoren, xehetasun informatiboak: lehen ministro ez ezik barne ministro ere bazela; diputatuen ganberako presidente izana zela, baita Parisko auzapezorde ere; kazetari ezaguna izana zela eta abokatu ere bazela; ideologiaz gorria zela, «gorrienetarik» gainera, baina ez zela «batere lanyerosa»[9]. Hamar hilabete baino ez zuen iraun Floqueten gobernuak. *Le Réveil*ek dimisioaren berri eman zuenean, egitura guztiz kronologikoko albistearen zortzigarren paragraforaino iritsi beharra zegoen zer gertatu zen

[8] «Errepublikako presidentearen bozkatzea», *Le Réveil Basque*, 1887-12-11.

[9] «M. Floquet. Gure Ministroen Presidenta», *Le Réveil Basque*, 1888-04-22.

ulertzeko, izenburuak arrastoa ematen zuen arren: «M. Floquet eta ministerioa eriora»[10].

Asko izan ziren diputatuen ganberako saioez euskaraz emandako berriak. Azpimarratzekoa da Louis Etxeberri diputatu kontserbadorearen hautaketaren baliogabetzeaz *Le Réveil*ek eman zuen informazioa, landua eta xehetasunez betea: *Eskualduna* astekariaren nagusia Mauleko barrutian diputatu aukeratu zuten 1890eko bozetan, baina ganberak baliogabetu egin zuen hautaketa, apaizek kanpainan legez kanpoko eragina izan zutelakoan. Kasu honetan, izenburuak ez ezik («Mauleko bozkatzearen haustea») kontakizunaren lehen lerroek ere ongi laburbiltzen dute gertaera: «Urtharrilaren 27an, Mauleko arrondasimenduko deputatuaren bozkatzea berifikatua izan da ganbaraz. Erran ginduen yadanic nola bozkatze hortako paper guziac etsamiatuac izan ziren komisione batez, zoina abiseko izan baitzen hautsia izan behar zuela, zeren ez zen behar zen bezala egina izan. Eh bien! Ganbara ere abisu bereko izan da, eta gure arrondisamenduko deputatuaren bozkatzea hautsia izan da 248 botzez 224 botzen kontra»[11].

Euskarazko albiste laburretarako atal propioa ere bazuen *Le Réveil*ek: «Berri zonbait». Titulurik gabeko berriak ziren, Frantziako eta nazioarteko politikari buruzkoak gehienak. Lehentasuna informazioak izan ohi zuen, nahiz eta askotan iritzia ere gehitzen zioten. Estiloa ere aski informatiboa izan ohi zen: zuzena, hitz gutxikoa.

1887ko azaroan agertu zen lehen aldiz atala, eta aste gehienetan argitaratu zen lehen hiru urteetan. Informazio hutsa ematen du, adibidez, 1848ko iraultzan parte hartu zutenentzako pentsioei buruzko honek, atalaren estreinaldian: «1848an, otsailan, izan zen Frantzian erreboluzione bat hirur egunez, eta, orduan kolpatu eta orai beharretan direnentzat, deputatuec egin dute lege bat, zoinaren medioz pentsione bat emana izanen baitzaiote bizi direno»[12].

---

[10] «M. Floquet eta ministerioaren eriora», *Le Réveil Basque*, 1889-02-24.

[11] «Mauleko bozkatzearen haustea», *Le Réveil Basque*, 1890-02-02.

[12] «Berry zonbait», *Le Réveil Basque*, 1887-11-06.

Euskal Herriko albiste askorik ez zuten eman «Berri zonbait» atalean, baina batzuk bai. 1890eko uztailekoa da hilketa honen berria, kazetaritza-estiloan idatzia, muina hasieratik laburbilduta, iritzirik gabea: «Eskual herrian, Maule ondoan, Aguer deitzen den gizon batec hil izan du Poutou bere ostatuko lagun bat. Aguer horrec aithortu du hesol batez yo duela gauaz, haren beha egon ondoan bidiaren gainean. Preso hartua izan da eta Poutou hil da kolpetaric hirur egunen buruan»[13].

Lehen zatian informazioa eman ondoren iritziarekin bukatzen zuten testuak ere ugariak ziren, bereziki Frantziako politikari buruzkoetan. Italiako eta Alemaniako agintariekin zituzten auzi eta tentsioei buruzko berri bateko bukaera da hau: «Ah! Ez balute, frantziarren beldurric, ikhusi behar ginduke nahi ez dugunic! Bainan badakite zerbait bagarela orai indarrez, puchantziaz eta dretchoz, ea aithortzerat aski eman ahal dute»[14].

Herriz herriko informazioa ere ematen zuen astero, «Pays Basque» atalean, tokian tokiko kolaboratzaileek idatzitako testuen bidez, baina frantsesez ziren gehienak. Euskarazko berriak noizean behingo salbuespenak ziren: gertakari zehatzei buruzko berri laburrak ziren —lapurretak, istripuak, suizidioren bat, hilketaren bat...—, egile ezberdinek idatziak zirelarik oso estilo ezberdinean onduak, estilo erretorikoan askotan eta kazetari sen handiagoz beste batzuetan.

4.4 ***Eskualduna***

Eskualduna, *Le Réveil* bezala, informazio orokorreko astekari elebiduna zen —lehen hamar zenbakiak hamabostekariak izan ziren, baina geroztik astez aste argitaratu zen—, eta kazetaritza guztiz ideologikoa egiten zuen. Eta, ildo editorialari dagokionez, guztiz kontrakoa zen: oso kontserbadorea eta erlijiozalea. Propaganda testuak ugariak ziren *Eskualduna*n, eta asteko artikulu nagusia —lehen orrian nabarmentzen zutena— iritzi kutsukoa izan

---

13 «Berri zonbait», *Le Réveil Basque*, 1890-07-20.

14 «Berri zonbait», *Le Reveil Basque*, 1889-06-02.

ohi zen, baina kazetaritza informatiboa ere egin zuen, urtetik urtera gehiago gainera.

Lehen zenbakietan iritzi testuak ziren nagusi, eta kazetaritza informatiboa, tokikoa gehienbat, frantsesez egin zuten, baina euskarazko berrien arrasto batzuk ere ageri ziren, tantaka. Euskarazko lehen bi albisteak bigarren zenbakian zetozen. Osorik ekartzeko modukoa da lehena, Baigorriko udal-bozketen emaitzei buruzkoa: «Marchoaren 20an bozac bildu dira Baigorrin herrico Conseiluaren osatceco. Gure sei adiskide icendatuac izan dira. Hogoi egun lehenago hartuzuten afruntuaz orhoituz. Gorriac ez dira menturatu beretaric presentacera. Onxa egin dute. Heien listac, bat egin ahal balute, Vicnancourrec Baigorrin izan duen baino boz gutiago bilduco zuen oraino»[15]. Aurrerantzean argitaratuko dituen albiste-eredu adibide egokia da: informazioarekin hasi, iritziarekin bukatu.

Geroztik, zenbaki gehienetan datoz informazio eta iritzia nahasten dituzten berriak. Askoz gutxiago dira informazio hutsa ematen dutenak. Iritzi espliziturik gabeko lehenak soldadutzari buruzkoak dira: «Orai artio ez diuzte seculan galdegin muthico gaztiac dispenxatiac zirenac cherbitchutic, bakia zen demboran. […] Primadera huntan chortia thiratu duten muthico horrec deithiac izanen dira beraz, beste soldaduekin batian bainan bakharric bi hilabeteren dako»[16]. Ez dator iritzirik bukaeran. Zenbaki berean, informazio hutsa da kirol ekitaldiei euskarazko hedabideetan egindako lehen aipamenetako hau ere: «Astelehenean Baigorrico plecariak harizan dire Louhossotarren contra, goizean esku huxez arraxaldean chisterez. Luhussotarrek irabazi dituzte bi partidak»[17].

Lehen hilabeteetan ez zen atal finkorik euskarazko informazio testuentzat. «Chronique Politique» eta «Fait Divers» atalak baziren, baina frantsesez ziren osoki; eta herriz herriko berrien atala, «Nouvelles du Pays», ia osoki, hasiera hartan. 1887ko abendutik aurrera, ordea, «Zonbeit berri» atalean bildu zituzten euskarazko berriak. Hasieran noizbehinka baino ez

---

15 «Baigorrin», *Eskualduna*, 1887-04-01.

16 «Cherbitchiaren ezitetic dispenxatiac direnen galdia», *Eskualduna*, 1887-08-13.

17 «Baygorri», *Eskualduna*, 1887-08-13.

zen argitaratu, baina denborarekin maiztasun handiagoa hartu zuen, garai batzuetan astero argitaratzeraino. «Nouvelles du Pays» atalean, euskarazko aleak gutxi ziren, baina baziren.

«Zonbeit berri» atalean titulurik gabeko berri laburrak biltzen zituzten, gertukoak nahiz urrunekoak, gehienak informaziodunak baina batzuk iritzi kutsukoak. Adibidez, atala lehen aldiz argitaratu zuteneko lehen berria guztiz informatiboa da, lehen lerrootan nabari denez: «Egun haukietan izan da kestione, Ruziaren eta Autrichiaren arteko gerla batez. Bi erresuma haukiek bildu dituzte tropa hainitz beren mugetan». Baina, azkena, guztiz iritzikoa: «Helduden urtharrilaren bortzian, zonbeit departamendutan izendatu behar dituzte zenaturrak. Alde guzietan errepublikanoak errabian dire; oihu egiten dute irabaziko dutela. Emanen diotegu errepusta: ez sobera kantatzeko»[18].

«Petite Chronique» atalean ere argitaratzen zituzten euskarazko berriak; laburrak izanik ere, «Zonbeit berri» atalekoak baino luzeagoak eta landuagoak ziren, eta titulu bana zeramaten. 1894ra bitartean, atal horren barruan eman ziren euskarazko albiste gehienak. Berri politikoetan, batez ere Frantziako politikagintzari buruzkoetan, beste arloetakoetan baino iritzi gehiago sartu ohi zuten. Bizikleten asmakizunari buruzko berrian, adibidez, iritzirik ez da: «Velocipède deitzen diren zaldiric gabeko karrosac ari dira bazter guztietan hedatzen, bai munduko yendetan, bai armadako soldadoetan»[19]. Grebaren asmakizunari buruzkoan, aldiz, iritziak bazuen tokirik: «Langileac sutan dire Frantzia gaineko alde guzian bereziki; noiz nahi beren lana uzten dute, eta elgar beroturic badaude lanic egin gabe. Kalte handiac hortic hekientzat berentzat, bai eta ere nausientzat. […] Horra zer den jendeari erlisionearen eta Jainkoaren baithako sinhestearen khentzea. Ikhusiko dute nahi ez dutenic. Eta halaric ere, chede horri buruz hari dire eskualde guzietaric. Zer itsumendu deithorragarria!»[20].

---

18 «Zonbeit berri», *Eskualduna*, 1887-12-23.

19 «Zaldiric gabeko karrosac», *Eskualduna*, 1890-10-17.

20 «Grebac», *Eskualduna*, 1891-11-27.

1894ko bukaeran aldaketak izan ziren. Euskarazko albisteentzako atal berezia sortu zen, «Asteko berriak», eta «Petite Chronique» frantses hutsean argitaratu zen aurrerantzean. Euskarazko herriz herriko albisteentzat, «Eskual Herria» atala jaio zen, eta hortik aurrera frantsesezko tokiko berriak baino ez zituen bildu «Nouvelles du Pays» atalak. Mende bukaerara arte behintzat eskema honi eutsi zion *Eskaldunak*, atal informatiboenei dagokienez.

«Asteko berriak»en albiste garrantzitsuenak ematen zituzten estilo homogeneoko testuen bidez. «Eskual Herria» atalean, aldiz, herriz herriko albisteak eman ohi ziren, estilo ez hain homogeneoan. Aparteko atala sortu zenetik ugaritu egin ziren euskarazko tokiko berriak, baina frantsesezkoak ugariagoak izan ziren XIX. mendeko azken urteetara arte.

Eskaldunak ehunka albiste argitaratu zituen urtero, eta milaka bere ibilbide osoan, eta estiloz bata bestearengandik desberdinak ziren askotan, baina egitura eta estilo jakin batekoak nagusitu ziren XIX. mende bukaerako urte haietan. Gertaeraren muina ez zen lehen lerroetan argitzen, aurrerago baizik. Hau da, piramide irauliaren egitura beharrean, egitura narratiboagoa baliatzen zen gehienetan; hasierak erretorikoak izan ohi ziren, gaiari sarrera egiteko, kontakizuna kronologikoa zen askotan, baliabide narratiboz eta idazkera biziz eraikia, eta iritzia eman ohi zen bukaeran sarritan. «Zonbeit berri», «Petite Chronique» eta «Asteko berriak» ataletako testu asko estilo horretakoak ziren eta, sinadurarik ez daramaten arren, jakina da testu haietako asko egile berak idatziak direla, Jean Hiriart-Urrutik hain zuzen ere[21].

Estilo horren adibide esanguratsua da berrehun lagunen heriotza eragin zuen uholdearen albiste luzea. Hasiera: «Gerthakari bat izigarria izan da, iragan astean, Suisako aldeari dagon frantses hiri batean. Hiri hura mendi handi baten zolan da. Mendi haren kaskoa, uda ala negu, bethi elhurrez eta hormaz estalia dago. Mendi gaitz haren ikhustea gatik ere bidekariak ardu-

[21] Jean Hiriart-Urruti *Eskaldunako* erredakzioko luma nagusia izan zen 25 urtez, 1891n edo 1892an lehen artikuluak idatzi zituenetik 1915ean hil zen arte. Altzibarren arabera (2004), berak idatziak dira 1890eko hamarkadako artikulu nagusi gehienak, eta 1898 arteko «Petite Chronique» ataleko euskarazko berriak eta «Asteko berriak» atalekoak.

ra badoazi harat». Kontakizuneko hurrengo lerroetan testuingurua ematen jarraitzen du, hamabosgarren lerroan argitzen du hiria Saint-Gervais dela eta suntsitua dagoela. «Zer gerthatu da?» galdetzen du kazetariak, eta gertaeraren kontakizun xeheari ekiten dio, 25. lerroan argitzeko menditik jausi den ur uholdeak hiria azpian hartu duela, eta, hamar lerro geroago, ehun lagun baino gehiago hil direla —tituluan dioen arren berrehun direla hildakoak—. Eta azken hitzak: «Zer gaua hilentzat. Eta zer biharamuna bizirik gelditu direnentzat!»[22].

Sadi Carnoten hilketaren kontakizuna ere antzeko estiloan eman zuten, gertaerak ordena kronologikoan emanez, presidentearen heriotza bukaerarako utziz. Hasiera: «Murde Carnot Lyoneko hirian zen larumbatean joanik Parisetik». 25. lerrotik aurrera dator labankadaren kontakizuna: «[…] nun eskuinaz, azpitik goiti, emaiten dakon presidentari gordea zaukan kanibet handi batez sahetsean». Ez da, ordea, oraindik hil. Hiltzailearen atxiloketa, jendearen istiluak, zaurituren eramatea, medikuaren saiakerak… Ehun lerro baino gehiago joan dira berriaren funtsa eman arte: «Handik laster eman du presidentak azken hatsa»[23]. Kasu honetan, dena den, kontuan hartu behar da «Petite Chronique» ataleko euskarazko kontakizunaren aurretik jada esana zegoela presidentea hil zutela, bai iritzi kutsuko artikulu nagusian euskaraz, eta bai atal informatiboan frantsesez.

Handik hiru urtera, Canovas del Castillo Espainiako lehen ministroaren hilketaren berri ematean, bestelako egitura baliatu zuen *Eskualduna*ko erredaktoreak, gertaeraren muina hasierara ekarriz; izan ere, gertaeraren berri ematen zuen lehen testua zen euskarazko albistea, aldizkari osoan. Tituluan ez du gertaera aurreratzen —«Canovas»—, baina testuan berehala dator notiziaren funtsa, hiltzailearen gaitzespenarekin batera. Hasiera: «Aste huntako berririk handiena da Canovas, Espainiako ministro buruzagiaren hiltzea. Galli deithu anarchista higuingarri tzar batek eman diozka hiru tiro […]». Ondoren, informazioz betetako hirurogei lerro datoz —hilketaren kontakizun bizia, eta hildakoari nahiz hiltzaileari buruzko informazioak—,

---

[22] «Berrehun hil», *Eskualduna*, 1892-07-22.

[23] «Petite Chronique», *Eskualduna*, 1894-06-29.

eta iritziko lerro gutxi batzuk bukatzeko: «Diren bezalako gaichtagin tzarrak! Bat hil da eta bertze bat agertzen da. Iduri du lo daudela edo behinbethikotz izituak, eta gero gutien ustean holako itsuskeriak egiten!... Nork begiratuko gaitu anarchistetarik?»[24].

4.5 *California'ko Eskual Herria*

California'ko Eskual Herria ez zen hutsetik abiatu, 1893ko udan argitaratzen hasi zenean Los Angelesen. Batetik, sortzaile eta editoreak, Jean Pierre Goytinok, bazuen eskarmentua kazetaritzan, euskarazko astekaria sortu aurretik lau urte behintzat egin baitzituen *Le Progrés*en lanean; Los Angelesko astekari frantsesetako bat zen. Bestetik, zortzi urte lehenago Los Angelesen bertan euskarazko astekari baten sorreraren eta porrotaren berri izateko aukera izan zuen; Biscailuzen *Escualdun Gazeta*. Euskal Herrian euskarazko kazetaritza egiten urte gutxi batzuk zeramaten aldizkariak ere ezagutzen zituela erakutsi izan zuen haiei egindako aipamenen bidez. Gainera, Europakoa baino kazetaritza-eredu informatiboagoa lantzen zuten egunkariak irakurtzeko aukera zuen egunero, hala nola *Los Angeles Evening Express* (1871n sortua), *Los Angeles Herald* (1873) eta *Los Angeles Daily Times* (1881).

Astez aste launa orrialdeko berri-papera argitaratu zuen Goytinok. Diaspora amerikarreko euskaldunei zuzendutako aldizkaria zen, bereziki Kaliforniakoei. Aldizkariaren egiturak aldaketak izan zituen denboran zehar, baina funtsean irizpide hauei eutsi zien: lehen bi orrialdeetan jite informatibo handiko albisteak, eta azken bi orrialdeetan testu informatibo gutxi batzuekin batera testu dibulgatiboak, literarioak eta erlijiosoak, publizitateaz gain.

Euskal Herriko tokian tokiko berriak «Eskual Herria» atalean argitaratzen ziren; *Le Réveil Basque*k eta *Eskaldunak* gehienbat frantsesez argitaratzen zituzten herriz herriko informazioen itzulpenak eta moldaketak ziren, hiru aste beranduago argitaratuak. Kaliforniako euskal komunitateari buruzko eta Ameriketako Mendebaldeko interes orokorreko informazioak

[24] «Canovas», *Eskualduna*, 1897-08-13.

«Herriko eta inguruetako berriak» atalean jasotzen ziren. Komunitateko kideei buruzkoak labur samarrak izan ohi ziren —horien artean laburrenak «Papurrak» azpiatalean bilduak—, eta gertaera orokorrei buruzkoak landuagoak eta luzeagoak; lehen pertsonan idatzitako gutun sinatuak ere argitaratzen ziren noizbehinka, Ameriketako leku ezberdinetatik idazten zuten kolaboratzaileek bidaliak. Bi atal finkoetatik kanpo argitaratzen ziren mundu zabaleko berriak; horien artean, arreta handiagoa eskaintzen zieten Espainiako eta, bereziki, Frantziako informazioei. Telegrama bidezko berriak jasotzen zituen Goytinoren kazetak ere, eta batzuetan azpiatal berezia eskaini: «Asteko depechak». Agentzia bidez jasotako nazioarteko berriak ziren, oso laburrak, titulurik gabeak.

Gehien erabilitako generoa albistea da, baina kronika gutxi batzuk ere badira. Oro har, batere iritzirik gabeko testu informatiboak gehiago dira iritzidunak baino. Nabarmentzekoa da iritziak presentzia handiagoa duela Euskal Herritik datozen albisteetan Kaliforniakoetan eta orokorragoetan baino, dudarik gabe testu horietako askoren jatorria *Eskualduna* edo *Le Réveil Basque* direlako. Arrazoi berarengatik, piramide irauliaren egitura duten albisteen proportzioa handiagoa da euskal diasporari, Kaliforniari eta nazioarteari buruzko informazioetan, kontinente zaharretik datozenetan baino.

Piramide iraulia *depech*etan zen ohikoena. Adibidez, hauxe da lehen zenbakiko *depech*etako bat, osorik: «Bi guerlako untzi inglesek yo dute bat bertzea Tripoliko herriaren aitzinean. Victoria, untzi handiena galdu da oso osoa urean eta 450 mariñel, Amiralarekin itho dire. Bertze untzia Camperdown, frango kolpatua da eta estatu tcharrean. Inglaterra guzia dolhuan da. Itho den Amirala deitzen zen Lord Tryron»[25]. Eta hauxe, gorde den azken zenbakiko *depech*etako bat, data eta guzti: «Jose Maria Reyna Barrios, Guatemala-ko Presidenta asasinatua izan da, aste huntan. Asasinoa han berean hil dute, Presidentak azken hatsa bothatu baino lehenago. Barrios yahan zen oinez, karrikan, lau guardez zaindua, asasinoa hurbildu zaiolarik eta tira batez yo burua. Presidenta lurrerat erori da. Orduan guarda batek

[25] «Asteko depechak», *California'ko Eskual Herria*, 1893-07-15.

han beran hil du asasinoa zoina baita Angeles bat. Manuel Estrada Cabrera, Vicepresidentak hartu du berehala Presidentaren kargua»[26].

Asteko *depech*en atala agertu eta desagertu egiten zen, baina agentziek bidalitako telegramen erabilera ohikoa zen, askotan aipatzen baitzituzten berrien kontakizuna egitean, bereziki gatazkei eta gerrei buruzkoetan. Horrelakoetan, informazioen fidagarritasunari buruzko kezka sarritan agertu zuten. Adibidez, Txinaren eta Japoniaren arteko gerrari buruzko honetan: «Ez da errech China-ko eta Japon-eko gerlaren berri segurik ukhaitea. Orai artinoko depechen arabera, Japonesek ongi zafratu dituzte Chinoak alde gehienetan, bai lurrean bai urean»[27]. Azken ordukoetan, askotan *depech*ak aipatzen zituzten iturri gisa. Adibidez, Sadi Carnoten gobernuetako baten erorketaren berria honela hasten da: «Paper hau inprimatzeko heinean yakiten dugu depecha baten medioz, Frantziako Minichterioa erori dela atzo arratsean»[28].

Euskal Herriko tokiko albisteen egitura, aldiz, gehienetan kronologikoa edo narratiboa zen: testua aurkezpenarekin edo testuinguruarekin hasi, gertaeren narrazio gehienetan kronologikoarekin jarraitu eta, askotan, bukaerarako uzten zen informazioaren muina. Adibide esanguratsua da Arnegin alaba hil zuen aitari egindako epaiketaren albistea. Hasieran, gertaera zaharra ekartzen du gogora: «Duela zonbeit denbora aiphatu ginuen nola nechkatcha bat hila atcheman zuten Arneguy-ko herri pollitean. Ferdinand Segura, nechkatcharen aita krima hortaz akhusatua izan zen eta preso altchatu zuten Donapaleurat». Ondoren kontatzen du gorpua non eta nola aurkitu zuten, aita susmagarriak zer istorio kontatu zuen, azkenean amak aitortu zuela aitak hil zuela kolpeka haurdun zegoela jakin zuelako, eta aita zigortu egin zutela zirudienean, ezustekoa bukaerarako: «Paueko abokat eskualdun famatu batek lagundu du Ferdinand Segura yustiziaren aintzinean eta hain ongi lagundu non libro athera baitu. Yuradoak erran du aitak

---

[26] «Asteko berriak. Depechak», *California'ko Eskual Herria*, 1898-02-19.

[27] «Gerla», *California'ko Eskual Herria*, 1894-08-25.

[28] «Azken berriak», *California'ko Eskual Herria*, 1893-11-25.

hil zuela alaba uste gabean»[29]. Iturria, kasu horretan, *Eskualduna* zen, honek bost aste lehenago argitaratu baitzuen albistea, frantsesez, egitura berdinarekin, epaiaren berria bukaerarako utzita[30].

Izenburuen estiloan ere nabari da Euskal Herriko astekarietan baino kazetaritza-eredu garatuagoa zutela: oro har, tituluak zehatzagoak dira eta izenburuek osagai informatibo gehiago dituzte, garrantzitsuak edo deigarriak diren albiste askotan azpitituluak ere erabiltzen baitituzte, batzuetan bat baino gehiago. Izenburuetan ere aldea nabari da Euskal Herritik datozen berrien —orokorragoak— eta gainerakoen —zehatzagoak— artean.

Sadi Carnoten hilketaren adibidea har dezagun, hiru astekarietako izenburuak alderatzeko. *Le Réveil Basque*ko izenburua, azpititulurik gabe: «M. Carnoten heriotzeaz»[31]. *Eskualduna*rena, hori ere azpititulurik gabe: «Presidentaren heriotzea»[32]. *California'ko Eskual Herria*ren izenburuaren lehen osagaia, titulua: «Carnot presidenta»; eta hiru azpituluak: «Italiano batez asasinatua!», «Frantziaren dolua!»[33], «Anarkista baten obra». Sadi Carnoten hilketarena ez da salbuespena Kaliforniako aldizkarian: ohikoak ziren azpititulu informatzailedun izenburuak garrantzi handiko berrietan.

*California'ko Eskual Herria*k ia izenburu guztiak zutabe bakarrera eman zituen. Salbuespena azken urtean iritsi zen, beste albiste handi baten berri eman zutenean: Cánovas del Castilloren hilketaren albistearen titulua bi zutabetara eraman zuten —«Espainiako lehen minichtroa asasinatua»—, ohi baino tipografia handiagoarekin, hiru lerrotan, eta hiru azpituluz lagundua: «Anarkista batek hiltzen du Señor Canovas del Castillo», «Izigarrikeri hori gerthatzen da Eskual-Herrian», «Berri cheheenak»[34]. Hilketa gertatu zen lekuari buruzko mapa argitzailea zekarren albisteak.

---

29 «Arneguy», *California'ko Eskual Herria*, 1894-03-31.

30 «Arneguy», *Eskualduna*, 1894-02-23.

31 «M. Carnoten heriotzeaz», *Le Réveil Basque*, 1894-07-01.

32 «Presidentaren heriotzea», *Eskualduna*, 1894-06-29.

33 «Carnot presidenta», *California'ko Eskual Herria*, 1894-06-30.

34 «Espainiako lehen minichtroa asasinatua», *California'ko Eskual Herria,* 1897-08-14.

Goytinoren astekariaren zenbait izenburu eta testutan sentsazionalismorako joera ere sumatzen da; hau da, irakurlearen sentsazioak edo emozioak pizteko asmoz egindako titulu eta azpitituluak ageri dira, Euskal Herriko astekarietan ez bezala. Gertaeren larritasuna azpimarratzeko adjektiboak askotan erabiltzen dituzte; oso maiz, besteak beste, «izugarria» edo «izigarria» adjektiboa. Eta harridura markak ere sarri baliatzen dituzte tituluei larritasuna gehitzeko: «Heriotzea da!»[35], «Ser erra!»[36], «Errendatuak!»[37].

4.6 ***Euskalzale***

Euskalzale euskara hutsean argitaratu zen, azken hamahiru asteetan salbu. Bizkaiko gobernadoreak hala aginduta (Díaz Noci 1995), eduki guztiak gaztelaniara itzulita plazaratu zen aldizkaria 1899ko azken hiru hilabeeteetan. Zortzi orrialdeko astekaria izan zen. «Astean asteango albistaria» zela zioen mantxetaren azpian 1897ko aleetan, eta «Edergarridun albistaria» zela, 1898ko urtarriletik aurrera, bestelako hizkuntzetan ohikoak ziren aldizkari ilustratuen erara. Lehen aroan, testuz betea etorri ohi zen azala, eta, bigarrenean, argazki handi batek hartu ohi zuen lehen orria; ez ziren gaurkotasun argazkiak, Euskal Herriko paisaia, herri, eraikin, ospakizun, pertsonalitate eta abarren argazkiak baizik.

Kazetaritza-testuak baino ugariagoak ziren dibulgazio-, iritzi- eta literatura-testuak, baina testu informatiboak ez ziren gutxi. Ez zen aldizkari jeneralista bat izan, *Le Réveil Basque*, *Eskualduna* eta *California'ko Eskual Herria* izan ziren eran; hau da, *Euskalzale* irakurriz ez zegoen astez asteko gaurkotasun informatiboaren jarraipena egiterik, aipatutako hiru astekariak irakurrita egin zitekeen moduan. *Euskalzale*ren irakurleek euskararen eta euskal kulturaren gaineko informazio ugaria jasotzeko aukera zuten, atzerriko zenbait gorabeherari buruzko berriak ere bai, baina bertako gertaera politiko eta sozialei buruz ezer gutxi jaso ohi zuten. Adibidez, Cánovas del

---

35 «Heriotzea da!», *California'ko Eskual Herria,* 1894-01-13.

36 «Ser erra!», *California'ko Eskual Herria,* 1894-02-17.

37 «Errendatuak!», *California'ko Eskual Herria,* 1894-02-24.

Castilloren hilketaren berririk edo aipamenik ez zuen argitaratu *Euskalzale*k 1897ko abuztuko zenbakietan.

Lehen hilabete eta erdian, gerora baino informatiboagoa izan zen: «Aste onetako barriak» atalean gaurkotasuneko berriak argitaratu zituen lehen sei zenbakietan, bi azpiataletan banatuta: «Euskalerrian» eta «Erdalerrietan». Orrialde osoa hartzen zuen atalak. Oso berri laburrak dira, jite informatibokoak, kazetaritza-estilo bizian idatziak. Gehienek informazio hutsa ematen dute, gutxi batzuetan iritzia ere ageri den arren. Gaiak, denetarikoak. Lehen zenbakian, adibidez, «Euskalerrian» atalean: politika (Arabako gobernadoreari kritikak), ekonomia (Bizkaiko itsasgizonen arrantzak), osasuna (Bermeoko zoroetxe berria), eguraldia (euriteak Zuberoan), kirola (korrika apustua Tolosan), kultura (antzerki-emanaldiak Deban)… Eta «Erdalerrietan» sailean: Erroman Aita Santuari buruzko berriak, Turkian gorabehera diplomatikoak Errusiarekin, Alemanian arma-erosketa handiak, Indian izurritea, Irlandan uholdeak, Frantzian Nazioarteko Erakusketaren prestalanak…

Nabarmentzekoa da Azkueren aldizkariak Euskal Herriaren osotasuna hartzen zuela aintzat, *Le Réveil Basque*k eta *Eskualduna*k egiten ez zuten eran, eta herrialde guztietako berriak zekartzala «Euskalerrian» atalera. Izenburuak emateko moduak nabarmendu egiten du ikuspegi hori gainera, albiste bakoitzaren titulua lekua zehaztera mugatzen baita. Batzuetan, herrialdea: «Araban», «Bizkaian», «Zuberoan», «Lapurdin»… Eta, besteetan, Bizkaiko eta Gipuzkoako hainbat berritan bereziki, herria: «Mundakan», «Gernikan», «Tolosan». Munduko berrien atalean ere lekua zehaztera mugatzen dira titulutxoak: «Erroman», «Turkian», «Beljikan», «Indian»…

Albisteak oso laburrak dira. Batzuk, bi edo hiru lerrokoak. Hona, osorik, lehen zenbakiko laburrena: «Mundakan txilintorre bat egiten diardue. Etxake txarto etorriko»[38]. Luzexeagoak dira gehienak, eta zehaztasun gutxi batzuk gehiago ematen dituzte. Kazetaritza-ikuspegiz idatzita daude gehienak, garrantzitsuena aurrera eramanda, ez pasadizo moduan, aldizkariko beste atal askotan bezala.

---

[38] «Aste onetako barriak. Euskalerrian», *Euskalzale*, 1897-01-03.

Kazetaritza-estiloaren adibide da bigarren zenbakian «Erribatuak (Estados Unidos)» titulupean argitaratutakoa: «Aurrerantzean ez dautse inori eriotzarik ezarriko. Lege barri batek ezereztu dauz, eriotzea gaizkin batzui ezarten eutsen lengo legeak»[39]. Baita seigarrenean «Naparroan» titulupean emandakoa: «Diputazino edo Ekautean aginduz Iruñatik Logroñorako bidea neurtuten asi dira; bada burdin-bide bat egin nai leukee Izarran (Estellan) zear»[40]. Atal horretako testu guztiak ez dira horren informatiboak, batzuetan iruzkin moduko iritziak ere gehitzen dituelako egileak, eta estiloa ere beti ez da horren kazetaritzakoa, kasu batzuetan itzulinguruekin hasten baita, zuzenean harira jo gabe. Baina adibideok ongi erakusten dute atalaren ikuspegi eta estilo orokorra zein den: zuzenean harira, eta erretorika gutxi.

*Euskalzale*ren zazpigarren atalean ez zen, ordea, «Aste onetako barriak» atala ageri, eta gehiago ez zen agertuko egitura eta mami horrekin. 1899ko apirileko zenbaki batean, 16.enean, izen bereko atala argitaratu zuten, baina hiru albiste baino ez zekartzan.

Atal finkoa desagertu ondoren ere albisteak ematen jarraitu zuen, baina neurri txikiagoan. «Or da emen» atalean urrutiko gertaerak plazaratzen zituen, baina denboran kokatu gabeak, pasadizo moduan kontatuak. «Zer edo zertsu» atalak kazetaritza-kutsu handiagoa zuen: atzerriko kontuen berri eman ohi zuen, albisteak eta bestelako kontuak, gehienetan pasadizo moduan.

Azken urtean, 1898ko azken zenbakietatik aurrera, kazetaritza-estilora itzuli zen «Asteko begiztaldia» atalaren bidez. Urte osoan hamahiru aldiz behintzat plazaratu zen. Atzerriko informazioak biltzen zituen, gatazka eta auzi politiko nagusiekin lotutakoak: Kubako gatazka, Filipinetakoa, Afrikako hainbat herrialdetakoak, Txinaren eta Japoniaren artekoa, Turkiaren eta Greziaren artekoa, Europako potentzien arteko gorabeherak… Baina ez ziren albisteak, geopolitikari buruzko testu interpretatibo eta analitiko luzeak baizik, batzuetan iritzi eta guzti, sinadurarik ez zuten arren.

---

39 «Aste onetako barriak. Erdalerrietan», *Euskalzale*, 1897-01-10.

40 «Aste onetako barriak. Euskalerrian», *Euskalzale*, 1897-02-07.

«Kazetaritza-kronika» generoa ere landu zuen *Euskalzale*k, oso tarteka bazen ere. Hainbat ospakizuni buruz lehen eskuko kontakizunak argitaratu zituzten, sinatuta gehienetan. Nabarmentzekoak dira B. [Baleriano] Mokoroak sinatutakoak, kazetari sen handiz eraikitako testuak baitira, zorroztasunez eta zehaztasunez onduak.

5 Ondorioak

Xahoren *Uscal-Herriko Gaseta* XIX. mendearen erdialdean Frantzian guztiz nagusi zen joeraren testuinguruan sortu zen: propaganda politikoa lehentasun zuen kazetaritza ideologikoaren baitan. Artean ez zen garatu negozioa lehentasun zuen prentsa, inpartzialtasuna aldarrikatuz eta informazio ez hain lerratua eskainiz salmentak handitzea helburu zuten enpresa-egunkariak. Informazioa propaganda hedatzeko tresna zen, albisteak bigarren mailako osagarriak ziren, eta iritziz josita zetozen. Xahoren kazetan ere bigarren mailako lekua zuten albisteek, eta gehienak iritziz hornituta zetozen. Esperientzia labur isolatu bat besterik ez zen izan, gainera, bere bi zenbakiekin. Hala ere, aitzindaritzaren aitortza zor zaio: euskarazko albisteak plazaratu zituen lehenengo argitalpena izan zen, urte askotako aldearekin gainera; euskarazko kazetaritza-hizkuntza eraikitzeko lehen adreiluak Xahok jarri zituen.

Biscailuzen *Escualdun Gazeta* beste tanta bat izan zen —hiru zenbaki besterik ez—, beste garai batean, beste lurralde batean. Idazkera traketsa eta grafia nahasia gorabehera, Biscailuzen aldizkarian oso nabarmena da AEBetan garatzen ari zen kazetaritza-ereduaren eraginaren arrastoa. XIX. mende bukaeran, hedapen handiko enpresa-egunkari indartsuak, kazetaritza ideologikoa atzean utzi eta kazetaritza informatibo berria garatzen ari zirenak (Chalaby 1996; Schudson 2001), errealitate sendoa ziren Kalifornian. Iritzia eta informazioa bereiztea dohaintzat zuten, inpartzialtasuna aldarrikatzen zuten eta gertaeretan ardaztutako istorioen bidez —batzuetan sentsazionalismo ukituz— erakartzen zituzten irakurle eta erosleak. Aldi berean, berri agentziak ere garatu ziren Europan bezala AEBetan, telegrafoaren zerbitzu garestiaren bidez berriak banatzen eta saltzen zituzten en-

presak, kazetariak behartzen zituztenak labur eta zehatz idaztera, eta garrantzitsuena hasieran ematera. Kazetaritza-hizkuntza berri bat ari ziren eraikitzen, iritzia alde batera uzten zuena, estilo erretorikoa baztertzen zuena, laburtasuna dohaintzat zuena (Stephens 1997). Horren arrastoa nabari da Los Angelesko lehen euskal astekariaren bizialdi laburrean.

Euskarazko kazetaritza informatiboaren historiaren lehen atal esanguratsua, dena den, *Le Réveil Basque*k eta *Eskualduna*k idatzi zuten. Astez aste, urteetan, etxean eta munduan gertatzen zenaren berri eman zieten irakurleei euskaraz, horretarako batez ere albistearen generoa baliatuz oso hasieratik. Frantzian kazetaritza ideologikoa zen nagusi, Europa mendebaldeko beste herrialdeetan bezala, baina kazetaritza informatiborako bidea egiten ari ziren enpresa-egunkariak ere indartzen hasiak ziren (Guillaumet 2003), 1880ko hamarkadan bi euskal astekariak sortu zirenerako. Kazetaritza guztiz ideologikoa egin zuten *Le Réveil Basque*k eta *Eskualduna*k, baina kazetaritza informatiboagoa ere egiten zuten egunkarien eraginpean. Iritziak zuen lehentasuna bi euskal astekarietan, baina informazioak ere pisu esanguratsua zuen; biek ala biek zituzten astez asteko informazioari emandako atal finkoak. Informazio gehienak iritziz hornituta zetozen, baina ez guztiak. Estiloa oso erretorikoa zen testu gehienetan, baita albiste askotan ere, baina estilo zuzenagoaren arrastoak ere ageri ziren. Tituluak ere lege zaharrera jarri ohi zituzten gehienetan, lekuaren edo gaiaren berri emanez beste zehaztasunik gabe, baina denborarekin titulu zehatzagoak ere agertzen hasi ziren batean zein bestean.

Testuinguru berean aritu ziren biak, eta kazetaritza-eredu antzekoa landu zuten. Baina, euskarazko kazetaritzaren historiaren ikuspuntutik, ez litzateke bidezkoa izango bataren eta bestearen ekarpena parekatzea. Euskarazko edukiei erreparatuta behintzat, *Eskualduna* askoz ere kazetaritza-produktu hobea zen: euskarazko edukiei lehentasuna ematen zielako; euskarazko kazetaritza-hizkuntza estiloz homogeneoa ontzen lan handia eta oparoa egin zuelako; testuen kalitatea hobea izanik kontakizunek dohain handiagoak zituztelako kazetaritza ikuspuntutik ere, zorrotzagoak, zehatzagoak eta argiagoak zirenez, oro har, estilo erretorikoa gorabehera. «Zonbeit berri», «Petite Chronique» eta «Asteko berriak» ataletan Jean Hiriart-Urrutik eta *Eskualduna*ko beste egileek idatzitako albiste ugariek beste inork baino leku

nabarmenagoa merezi dute euskarazko informazio-generoen hastapenen historian.

Biscailuzen *Escualdun Gazeta*ren leku berean jaio eta garatu zen Goytinoren *California'ko Eskual Herria*, hau da, kazetaritza gero eta informatiboagoa egiten zuten egunkari kaliforniarren testuinguruan, baina zortzi urte geroago. Biscailuzen aldizkariak baino askoz gehiago iraun zuen, eta kalitate handiagoko kazetaritza-produktua egin zuen. AEBetako Alderdi Errepublikanoko kidea zen Goytino, eta ez zuen ezkutatzen, baina *California'ko Eskual Herria* ez zen hedabide alderdikoia, ez zion iritziari lehentasuna ematen eta ez zuen propaganda politikorik egiten. Lehentasuna informazioari ematen zion, euskal diasporako kide guztiei zuzendutako edukiak ematen zituen, joera politiko guztietako irakurleek eroso irakurtzeko modukoak. Informazio-generoak euskaraz beste inork ez bezala landu zituen, kazetaritza estatubatuar garatuagoaren eraginpean: batere iritzirik gabeko albiste asko argitaratzen zituen, hasieratik harira jotzen zuen estilo zuzen eta zehatza baliatzen zuen, hizkuntzaren argitasuna eta laburtasuna lehenesten zituen, eta informazioaren funtsa laburbiltzen zuten izenburuak egin ohi zituen, azpititulu osagarri eta guzti albiste garrantzitsuenetan. *Escualdun Gazeta*k lehenago bezala, *California'ko Eskual Herria*k berri agentzien *depech*en zerbitzua baliatu zuen, eta haietan baliatzen zen estilo zuzen, labur eta argia euskarara ekarri zuen.

Los Angelesen argitaratzen zen, baina euskaraz; Kaliforniako hedabideetatik elikatzen zen, baina baita Euskal Herrikoetatik eta Frantziakoetatik ere. Horregatik, Euskal Herrian eta Frantzian nagusi zen —eta AEBetan oraindik guztiz gainditu gabe zegoen— kazetaritza-eredu ideologikoaren eraginpean ere aritu zen, eta horren arrastoak ere badaude *California'ko Eskual Herria*ren orrialdeetan. Iritziarekin bukatzen ziren albisteak ere argitaratzen zituen, iritzirik gabeko ugariagoen artean, eta estilo erretorikoa ere baliatzen zuen, estilo zuzen eta zehatza baino gutxiagotan bazen ere. Irakurlearen arreta erakartzeko ukitu sentsazionalistako izenburuak eta testuak ere baliatu zituen Goytinoren aldizkariak, baina horrek ez du prentsa sentsazionalistaren eremuan kokatzen; besterik gabe, garai berean bereziki New Yorken Pulitzerren eta Hearsten egunkarien eskutik garatu zen prentsa-

mota horren (Francke 2019; Shaw eta Slater 2019) eragina ere nabari da, neurri apal batean, Goytinoren astekarian.

Hego Euskal Herrian euskara hutsean argitaratu zen lehen aldizkaria izan zen *Euskalzale*, baita informazio genero oinarrizkoena, albistea, euskaraz maiztasunez eman zuen lehena ere. Lehen sei zenbakietan argitaratutako albiste laburren atala euskarazko kazetaritza-hizkuntza argi, labur eta zehatza lantzeko saiakera interesgarria izan zen, Azkueren eskutik. Estiloaren ikuspuntutik, *Euskalzale*ren eredua gertuagoa zegoen *Eskualduna*ren eta *Le Réveil Basque*ren eredu europarretik *California'ko Eskual Herria*ren eredu amerikarragotik baino.

Hortik aurrera, informazioa, interpretazioa eta iritziaren mugetan mugitzen ziren testu ugari argitaratu zituen, kazetaritza narratiboaren eta analitikoaren eremuan kokatzekoak, eta ekarpen sendoa egin zion ildo horretan euskarazko kazetaritza-hizkuntzari. Informazio hutseko albisteen arloan, ordea, ez du ondare handirik utzi, lehenengo hilabete eta erdian astez aste plazaratutako atal bereziaz aparte.

Euskarazko lehenengo hedabideetan informazio-genero oinarrizkoenak, albisteak, zer leku eta bilakaera izan zuen aztertu da artikulu honetan. Horretarako egin den azterketa hemerografikoan atzeman da euskarazko kazetaritzaren lehen aro honetan, albistearekin batera, kronika ere landu zela artikulu honetan aztertu diren hedabide gehienetan. Sinatu gabeko kronikak dira askotan, baina sinatuak ere bai, beste batzuetan. Kronika horiek aztertzeak ekarri dezake argi pixka bat euskarazko kazetaritza-generoen hastapenen historiari buruz.

Bibliografia

ALTZIBAR, Xabier (2002). «*Euskalzale* eta *Ibaizabal* Bilboko asterokoak», *in* Adolfo Arejita, Ana Elejabeitia, Carmen Isasi eta Joan Otaegi (arg.) *Bilbao, el espacio lingüístico: Simposio 700 aniversario*. Deustuko Unibertsitatea.

ALTZIBAR, Xabier (2004). «Hitzaurrea», *in* Jean Hiriart-Urruti, *Ni kazeta-egilea naiz. Artikulu, berri, istorio*. Labayru Ikastegia.

ALTZIBAR, Xabier (2005). «Zer dakarkio Hiriart-Urrutik euskal kazetaritzari?», *in Txilladegiri omenaldia «nerekin yaio nun»*. Iker bilduma 17. Euskaltzaindia.

ALTZIBAR, Xabier (2008). «*Réveil Basque* astekari errepublikano elebiduna (1886-1894)», *in Jean Haritschelhar-i omenaldia*. Iker bilduma 21. Euskaltzaindia.

ARBELBIDE, Xipri (2001). «Californiako Eskual Herria» *in* Jean Claude Larronde (arg.), *Eugène Goyheneche Omenaldia Hommage*. Eusko Ikaskuntza.

ARBELBIDE, Xipri (2003). *Jean Pierre Goytino*. Bidegileak 30. Eusko Jaurlaritzaren Argitarapen Zerbitzu Nagusia.

ARBELBIDE, Xipri (2007). *Xuri-gorriak*. Elkar.

ARMIARMA. EUSKAL PRENTSAREN LANAK. «Eskualduna» (1887-1944). Azken kontsulta data: 2026-06-02. https://www.hemeroketa.eus/argi.htm

ARMIARMA. EUSKAL PRENTSAREN LANAK. «*Euskalzale*» (1897-1899). Azken kontsulta data: 2026-06-02. https://www.hemeroketa.eus/argi.htm

BIBLIOTÈQUE NATIONALE DE FRANCE. GALLICA. «*Uscal-Herrico Gaseta*» (1848). Azken kontsulta data: 2026-06-02. https://prentsa.bilketa.eus/ark:/12148/bpt6k6266264t

BIDEGAIN, Eneko (2013). *Lehen mundu gerra* Eskualduna *astekarian*. Euskaltzaindia.

BILKETA, EUSKAL FUNTSEN ATARIA. «*Ariel*» (1844-1852). Azken kontsulta data: 2026-06-02. https://www.bilketa.eus/ark:/27020/bi00004

BILKETA, EUSKAL FUNTSEN ATARIA. «*Eskualduna*» (1887-1944). Azken kontsulta data: 2026-06-02. https://prentsa.bilketa.eus/prentsa-motak/tokiko-prentsa/eskualduna

BILKETA, EUSKAL FUNTSEN ATARIA. «*Le Réveil Basque*» (1886-1894). Azken kontsulta data: 2026-06-02. https://prentsa.bilketa.eus/prentsa-motak/tokiko-prentsa/le-reveil-basque

CHAHO, Agosti (1992). *Azti-begia eta beste izkribu zenbait. Patri Urkizuren edizioa*. Klasikoak.

CHALABY, Jean K. (1996). «Journalism as an Anglo-American Invention: A Comparison of the Development of French and Anglo-American Journalism, 1830s-1920s», *European Journal of Communication* 11 (3): 303-326. https://doi.org/10.1177/0267323196011003002

DÍAZ NOCI, Javier (1995). *Euskal prentsaren sorrera eta garapena (1834-1839)*. Eusko Ikaskuntza.

DÍAZ NOCI, Javier (2001). «Historia del periodismo en lengua vasca de los Estados Unidos: dos semanarios de Los Ángeles en el siglo XIX», *Zer: Komunikazio Ikasketen Aldizkaria* 10: 309-329.

VAN DIJK, Teun A. (1990). *La noticia como discurso. Comprensión, estructura y producción de la información*. Paidós.

EUSKARIANA, EUSKADIKO LIBURUTEGI DIGITALA. «*California'ko Eskual Herria*» (1894-1898). Azken kontsulta data: 2026-06-02. https://www.euskariana.euskadi.eus/euskadibib/es/bib/1058678.do?queryId=47149&position=3

EUSKARIANA, EUSKADIKO LIBURUTEGI DIGITALA. «*Escualdun Gazeta*» (1885-1886). Azken kontsulta data: 2026-06-02. https://www.euskariana.euskadi.eus/euskadibib/es/bib/1058673.do

FRANCKE, Warren (2019). «Sensationalism and the Development of 19th-Century Reporting: The Broom Sweeps Sensory Details», *Journalism History* 12 (3-4): 80-85. https://doi.org/10.1080/00947679.19 85.12066609

GOMIS, Llorenç. (2019). *Teoría de los géneros periodísticos*. Universitat Oberta de Catalunya.

GUILLAMET, Jaume (2003). «Por una historia comparada del periodismo. Factores de progreso y atraso», *Doxa Comunicación* 1: 35-56. https://doi.org/10.31921/doxacom.n1a2

KINTANA, Jurgi (2005). «Euskarazko prentsaren hasiera eta garapena Bilbon (1815-1937)», *Bidebarrieta* 16: 141-169.

KNÖRR, Enrike (1990): «De cuando se hacían periódicos vascos en California». *El Diario Vasco*, 1990eko otsailaren 11: 20.

LAFITTE, PIARRES (1941). *Le basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule. Conférence donnnée au Museée Basque de Bayonne le 3 avril 1941*. Aitzina.

LAFITTE, PIARRES (1971). «Aintzin-solasa», *in* Jean Hiriart-Urruty, *Mintzaira, aurpegia: Gizon!* Jakin.

MARTÍNEZ ALBERTOS, José Luis (1974). *Curso general de redacción periodística*. Mitre.

MURUA, Imanol (2022). «Far West en lengua vasca: el periodismo pionero del semanario vasco-americano California'ko Eskual Herria (1893-1898)», *Revista Internacional de Historia de la Comunicación* 18: 142-162. https://doi.org/10.12795/RIHC.2022.i18.09

MURUA, Imanol (2023). «Bertsolariak, erromesaldiak eta naufragioak: Klaudio Otaegiren kronika aitzindariak «Euskal-Erria» aldizkarian (1880-1887)», *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 68 (2): 87-115. https://doi.org/10.59866/eia.v2i68.266

MURUA, Imanol (2024). «Euskarazko kazetaritza politikoaren hastapenak: *Le Réveil Basque*-ren ekarpen aitzindaria (1886-1894)», *Uztaro* 131: 85-106.

OIHARTZABAL, Beñat (1990). «Euskarazko kazetaritzaren lehen entseiua: A. Chahoren *Euskal Herriko Gaseta (1848)*», *in* Elixabete Perez Gaztelu eta Patri Urkizu Sarasua (arg.), *Patxi Altunari omenaldia*. Mundaiz 5: 191-207.

SCHUDSON, Michael (2001). «The objectivity norm in American journalism», *Journalism* 2 (2): 149-170. https://doi.org/10.1177/146488490100200201

SHAW, Donald L., SLATER, John W. (2019). «In the Eye of the Beholder? Sensationalism in American Press News, 1820-1860», *Journalism History* 12 (3-4): 86-91. https://doi.org/10.1080/00947679.1985.12066610

STEPHENS, Mitchell (1997). *A history of news*. Harcourt Brace College Publishers.

URKIZU, Patri (1992). *Agosti Chahoren bizitza eta idazlanak (1811-1858)*. Euskaltzaindia.

ZABALTZA, Xabier (2011). *Agosti Xaho. Aitzindari bakartia, 1811-1858*. Bidegileak 62. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.